

# UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

## NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

---

### Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Amatasun subrogatu komertziala, emakumeen kontrako indarkeriatzat har Al daiteke istanbuleko hitzarmenaren ikuspuntutik?"

### Egilea

Garazi Urdalleta Lete

### Gradua

Zuzenbidea

### Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna

### Laburpena

Azken urteotan, geroz eta gehiago entzutera eraman den gaia izan da "amatasun subrogatua"-rena. Horregatik, lan honetan praktika hau aurrera eramaten duten emakumeek duten papela aztertuko da. "Amatasun subrogatu" komertziala, hegoaldeko zenbait herrialde txiroetan ematen den fenomeno edo gertakari bezala ulerturik, praktika honek gizartean zein legearen ikuspuntutik duen oinarria arakatuko da. Behin hau ikusita, "amatasun subrogatua" emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitu eta borrokatzeko egindako Istanbuleko Hitzarmenean jasotako emakumeen aurkako indarkeriatzat hartu al daitekeen ikertuko da.

### 2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Agenda 2030ko 5. helburu jasangarriarekin du zuzeneko lotura nire GrAL-ak. Nire helburua, "amatasun subrogatu" komertzialak, emakumeen aurkako indarkeriarekin duen lotura aztertzea izan da. Horregatik, esan daiteke, 5. helburuan jasotzen den genero berdintasunarekin zuzeneko lotura daukala nire lanak.